



LASARTE-ORIA

UDALA-AYUNTAMIENTO

LASARTE-ORIAKO UDALERRIKO ESKOLA-KONTSEILUAREN ARAUDIA



SARRERA

Lasarte-Oriako Udalak badaki herritar gazteen heziketa udal-politikaren eginkizunik garrantzitsuenetakoa dela, eta inplikaturiko eragile guztien partaidetza eta kogestio handiagoa behar duela heziketa horrek. Euskadiko Eskola-kontseiluei buruzko 13/1988 Legearen III. Tituluarekin bat etorrita, Lasarte-Oriako Udalak Lasarte-Oriako Udalerriko Eskola-Kontseilua sortzea proposatzen du, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programazioarekin zerikusia duten gizarte-sektoreentzat partaidetzako, aholkularitzako eta kontsultako organoa izateko.

Alde horretatik, **Lasarte-Oriako Udalerriko Eskola-Kontseilua** eratzeak herritarrek hezkuntzaren arloan parte-hartze eraginkorragoa edukitzea ahalbidetuko du. Horrela, aginte publikoek hobeto erantzun ahalko diete hezkuntzaren arloan herritarrek dituzten premiei eta, oro har, komunitatearen beharrei.

I. KAPITULUA

1. artikulua. Misioa.

Lasarte-Oriako Udalerriko Eskola-Kontseilua herriko ikastetxe guztien kontsultatzeko, aholku emateko eta parte hartzeko organoa da, irakaskuntza ez unibertsitarioaren programazioari, jarraipenari eta kontrolari dagokionez, Lasarte-Oriako udalerriaren esparruan.

2. artikulua. Helburuak.

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren esparruan afektaturiko sektore sozial guztiei bermatzea Lasarte-Oriako irakaskuntzaren programazio orokorrean parte hartzeko eskubidea benetan baliatzea.

Lasarte-Oriako herritarren hezkuntzazko premiei erantzungo zaiela ziurtatzea, eskola-plazen eskaintza egoki baten bitartez.

Gizartetik edo instituzioetatik hezkuntzako komunitateari zuzentzen zaizkion prestakuntzako, kulturako, kiroleko eta aisiako eskaintzak koordinatzea eta inkorporatzea.

Ikastetxeak Lasarte-Oriako ingurune geografiko, sozioekonomiko eta kulturean erabat integra daitezen bultzatzea.

II. KAPITULUA

3. artikulua. Eginkizunak.

Udalerriko Eskola-Kontseiluari kontsultatu egingo zaio eta, aholkua eta



informazioa emateaz gain, proposamenak ere egingo zaizkio honako gai hauen gainean:

a) Udalerrian eskola-plazak sortzea, kentzea eta aldatzea, bai eta ikastegiak eraberritzea ere.

b) Ikastetxeen jardunean eragina duten izaera estrukturalako jarduketa municipalak, garbiketaren, kontserbazioaren, mantentzioaren, instalazioak eraberritzearen eta abarren alorrekoak, betiere arlo horretan udalei esleituriko eskumenen barruan.

c) Irakaskuntzari buruz udalerriaren esparrutik garatzeko proposatzen diren jarduketa eta xedapen municipalak, halakoak non eragina baitute derrigorrezko hezkuntzan, haur-hezkuntzan, helduen etengabeko prestakuntzan, osagarrizko eta eskola-orduetatik kanpoko jardueretan, arautu gabeko irakaskuntzan, asistentzia psikopedagogikoan, eskola-kirolean, eskola-absentismoan, ingurumena babesteko heziketan, osasunerako heziketan, etab., betiere hezkuntzari loturiko jarduerak, planak eta proiektuak badakartzate.

d) Hezkuntza-arloko eskaintza lurraldean banatzeko dauden premiak eta irizpideak aztertzea, eta udalerrri mailako eskola-mapa tankeratzea.

e) Gizarteak hezkuntzako komunitateari akordioak hartzeko egiten dizkion proposamenak eta ekimenak, eta horien koordinazioa.

f) Osabidezko hezkuntzaren eta lanbideko hastapenen alorrean jarduteko planak.

g) Hezkuntzako patronatuak, partzuergoak eta instituzioak eratzea, zeinen jardun-esparrua udalerrria izango den edo zeinetan udala partaide izango den.

h) Eskoletan eta horien eraginpeko esparruan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzearekin zerikusia duten jarduketak, bai eta eskolako jazarpenaren, emakumeenganako bortizkeriaren eta era guztietako diskriminazioaren kontrakoak ere.

i) Eskoletan eta horien eraginpeko esparruan hezkuntzaren normalizazioa eta euskararen erabilera bultzatzearekin zerikusia duten jarduketak.

j) Eskoletako jantokien eta garraio-zerbitzuen premiak, egoera, zabaldu edo aldatu beharra aztertzea.

k) Aurrematrikulazioko kanpainak.



l) Gurasoak heziketaren prozesuan integratzea, guraso-eskolen, prestakuntzako ikastaroen edo antzeko ekimenen bitartez.

m) Hezkuntzako agintariek eta/edo udaleko agintariek bere esku jartzen dioten beste edozein.

III. KAPITULUA. UDALERRIKO ESKOLA-KONTSEILUAREN ORGANOAK

4. artikulua. Osaera.

Udalerriko Eskola-Kontseiluaren organoak hauek dira: Lehendakaritza, Lehendakariordetza eta Osoko Batzarra.

5. artikulua. Lehendakaritza. Eginkizunak.

a) Udalerriko Eskola-Kontseiluaren lehendakaritza alkateari edo zeinengan delegatzen duen zinegotziari dagokio.

b) Udalerriko Eskola-Kontseiluaren lehendakaritzak honako eginkizun hauek izango ditu nagusiki:

- Kontseiluaren bileretarako deialdiak egitea eta horietan lehendakari jardutea, debateak zuzentzea eta, bozketetan berdinketa gertatuz gero, berdinketa haustea.
- Kontseiluaren zereginak bultzatzea eta koordinatzea.
- Kontseiluaren legezko ordezkariak.
- Bilkura bakoitzerako gai-zerrenda prestatzea.

6. artikulua. Udalerriko Eskola-Kontseiluaren Osoko Batzarraren osaera.

Udalerriko Eskola-Kontseiluaren Osoko batzarra osatuko duten kideak honako hauek dira:

1. Lehendakaria.
2. Lehendakariordea.
2. Bokalak.
3. Idazkaria.

7. artikulua. Udalerriko Eskola-Kontseiluaren osoko batzarraren bokalak.

Kontseiluaren bokalak hauek dira:

- Udalean ordezkariak duten alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi bat.
- Adskribitu gabeko zinegotzien artetik izendaturiko zinegotzi bat, haiek proposatuko dutena. Baldin eta ordezkari bat izendatzeko ados jartzen ez badira, alkatetzak erabakiko du izendapena.
- Udalerrian irakaskuntza ez unibertsitarioa ematen duen ikastetxe bakoitzeko zuzendaria edo zeinengan delegatzen duen irakaslea.



- Udalerrian irakaskuntza ez unibertsitarioa ematen duen ikastetxe bakoitzeko Ikasleen Gurasoen Elkarteko kide ordezkaria.
- Idazkaria, mintzatzeko eskubidearekin baina bozkatzeko eskubiderik gabe.

8. artikulua. Lehendakariordetza

Udalerriko Eskola-Kontseiluaren lehendakariordetza Hezkuntza Batzordeko lehendakari kargua betetzen duen zinegotziari dagokio.

9. artikulua. Bokalak izendatzea.

- Talde politikoen eta adskribitu gabeko zinegotzien ordezkari izango diren bokalak agintaldi bakoitzaren hasieran izendatuko ditu alkateak, udaleko talde politikoei proposatuta.
- Ikastetxeetako bokalak agintaldi bakoitzaren hasieran izendatuko ditu alkateak, ikastetxeetako zuzendariak proposatuta.
- Gurasoen ordezkari izango diren bokalak agintaldi bakoitzaren hasieran izendatuko ditu alkateak, ikastetxe bakoitzeko Ikasleen Gurasoen Elkarteak proposatuta.

Halaber, bokal bakoitzaren ordezkari bat izendatuko da.

10. artikulua. Idazkaritza. Eginkizunak

Udalerriko Eskola-Kontseiluaren idazkaria Lasarte-Oriako Udalaren hezkuntzako teknikaria, Hezkuntzako Batzorde Informatiboaren idazkaria edo, kasua hala bada, haren ordezkaria izango da, eta idazkari horrek Kontseiluaren bilkuretan mintzatzeko eskubidea izango du, ez ordea bozkatzekoa.

Udalerriko Eskola-Kontseiluko idazkariak honako betekizun hauek izango ditu nagusiki:

- Lehendakariarekin batera, bileretarako aztergaien zerrenda prestatzea.
- Bileren deialdiak egitea, betiere bost egun lehenagotik.
- Bilkura guztien akta idaztea eta egitea, iritsitako konklusioak bertan jasota.
- Kontseiluko kideei bidezko eta beharrezko informazioa bidaltzea, bai eta dagozkien aktak ere.
- Kontseiluko kideen proposamenak jasotzea eta, kasua hala bada, horietaz informatzea.

Lehendakariari eta Kontseiluari aholkularitza ematea, eskatzen zaionean.

11. artikulua. Aholkularitza.

Lehendakariak pertsonak eta instituzioak gonbidatu ahalko ditu Udalerriko Eskola-Kontseiluaren bileretara, baldin eta haien balorazioa, iritzia edo aburua interesgarritzat jotzen badu.

12. artikulua. Kontseiluaren deialdia.

- Osoko Batzarraren deialdiak egitea lehendakariari dagokio, eta hark sartuko



du deialdian aztergaien zerrenda, gutxienez bost egun lehenagotik.

- Aztergaien zerrenda lehendakariak egingo du, idazkariarekin batera, Osoko Batzarreko kideengandik jasotako proposamen guztiak kontuan harturik.

13. artikulua. Bokal izaera galtzea.

1. Kontseiluko kideek izaera hori haren agintaldia bukatzen denean galduko dute, edo:

- Norberak nahi duelako.
- Ordezkatzen duen erakundeak hala erabaki duelako.
- Ordezkatzen duen entitatea juridikoki desagertu delako.
- Ordezkaritza politikoen kasuan, zinegotzi izaera iraungitzen zaienean.

Aurreko kondizio horiek idatziz adierazi beharko dira, eta Kontseiluko lehendakariari zuzendu beharko zaizkio.

2. Kontseiluko kideak berriro hautatu ahalko dira agintaldia bukatutakoan.

IV. KAPITULUA BARNE-ERREGIMENA

14. artikulua. Deialdiak.

Udalerriko Eskola-Kontseilua ohiko bilkuretan bilduko da, eta, ohiko eskola-kurtsorako, 3 bilera proposatzen dira, bat ikasturtearen hasieran, bat bigarren hiruhilekoan eta bat azken hiruhilekoan.

Udalerriko Eskola-Kontseiluak ohiz kanpoko bilkura egingo du:

- Lehendakariaren ekimenez.
- Bozkatzeko eskubidea duten kideen herenek hala eskatuta, betiere organo horren eskumenpeko gaiak badira.

15. artikulua. Bilkurak.

- Udalerriko Eskola-Kontseilurako deialdiak lehendakariak idatziz egingo ditu, gutxienez bost egun lehenagotik ohiko bilkuretarako, eta hiru egun lehenagotik ohiz kanpoko bilkuretarako.

- Kontseiluaren Osoko Batzarrik ezingo da egin baldin eta lehendakaria eta idazkaria edo haien ordezkariak izendaturikoak agertzen ez badira.

- Udalerriko Eskola-Kontseiluaren Osoko Batzarra lehengo deialdian baliozki eratzeko quoruma Kontseilua osatzen duten kideen kopuruaren gehiengoa izango da.

- Quoruma lehendabiziko deialdian iristen ez bada, bigarren deialdia egingo da, eta bilkura ordu erdi geroago egingo da, leku eta egun berean. Bildutako kopurua edozein dela egin ahalko da, betiere kideen herenak gutxienez etorri badira.

- Egindako bilkura bakoitzeko, dagokion akta jasoko da, non jasoko baita bilkuran izandako pertsonen berri, denborari eta lekuari buruzko adierazpenen berri, jorraturiko gaien berri eta, botaziorik izanez gero, horien emaitzen berri. Udalerriko Eskola-Kontseiluaren egoitza Lasarte-Oriako udaletxea da.



16. artikulua.

Araudi honetan aurreikusi gabeko guztian, Korporazio Lokalen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduak xedaturikoa aplikatuko da.

BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

Udalerriko Eskola-Kontseilua lehen aldiz eratzeko eta hasierako bokalak izendatzeko, Alkatetzak ordezkaria eta ordezkoa proposatzeko eskaera bidaliko die idatziz ikastetxeei, guraso-elkarteei, udalean ordezkaritza duten alderdi politikoei eta adskribitu gabeko zinegotziei, eta 15 eguneko epea ezarriko da proposamenak jasotzeko.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da behin Lasarte-Oriako Udalbatzarrak onetsitakoan eta Erregimen Lokalaren arloan indarrean dagoen legediak ezarritako baldintza guztiak betetakoan (Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzeko 7/85 Lege apirilaren 2koa, zeina aldatu baitzuen Gobernu Lokala Modernizatzeko Neurrien 57/2003 Lege abenduaren 16koak, eta horrekin bat datozenak).